

Bigarren Behatokia (2024-2025)

Kultura Idatziaren Iraunkortasunaren Behatokia

CEDROk sustatutako ekimena
2024ko urria

Sarrera

Idazle, itzultzaile, kazetari eta editoreen lana funtsezko zutarria da gure gizartean, entretenezko gaitasunagatik ez ezik, hezkuntzan, garapen pertsonal eta profesionalean eta gizarte-kohesioan ere duen eraginagatik.

Liburuaren eta prentsaren munduan autore-eskubideak zer egoeratan dauden aztertzeke eta argitalpen-sektorearen biziraupena bermatzeko zer hobekuntza egin beharko liratekeen identifikatzeko (**liburuak, egunkariak, aldizkariak eta partiturak**), CEDROk Kultura Idatziaren Iraunkortasunaren Behatokia kaleratu zuen 2023an.

Lehenengo Behatokiak bi arazo hauek identifikatu zituen sektorean:

- 1.** Argitalpen-edukiak (liburuak, egunkariak, aldizkariak eta partiturak) berrerabiltzeari dagokionez, herri-administrazioek eta sektore pribatuak ez diete autoreei eta editoreei ordainsaririk ematen, nahiz eta funtsezkoa den. Europako gainerako herrialdeetan ez da halakorik gertatzen.
- 2.** Argitalpen-edukien pirateria digitalak azken urteotan izan duen hazkunde esponentziala, bai eta eduki piratak eskuratzen dituzten kontsumitzaileengan gertatzen den disonantzia kognitiboa ere (aitortzen dute eta badakite gaizki egina dagoela, baina ez dute baztertzen).

Bi alderdi horiek arriskuan jartzen dute kultura idatziaren sektorea, lehiarako desabantaila sortzen baitiete bertako autore eta editoreei Europako kideen aldean. Azterketa-lan hartan, sektorearen egoerari hobetzen lagunduko lioketen hainbat neurri identifikatu ziren, hala nola:

- 1.** Jabetza intelektualari dagokionez, eskura dauden baliabideekin jardunbide egokietan heztea eta prestatzea, gizarteko eremu guztietan eta hezkuntza-komunitatean bereziki.
- 2.** Argitalpen-lanen berrerabilpena behar bezala ordaintzea, eta herri-administrazioa izatea prozesu horretan lider. Eredugarria izango litzateke hori sektore pribatuarentzat, gure inguruko herrialdeetan gertatzen den bezala, eta, ondorioz, 44,67 milioi euro ordaindu beharko lirateke egile-eskubide gisa; kopuru horretatik 24,93 milioi sektore publikotik etorriko lirateke.

2024an aurkeztutako bigarren behatokian saiatuko gara aurreko azterketan identifikatutako arazo horiei erantzuten. Horregatik, batetik aztertuko da gizarteak zenbat baloratzen duen idazle, itzultzaile, kazetari eta editoreen lana eta lan hori zenbat ordaintzeko prest dagoen. Eta, bestetik, disonantzia kognitiboaren kontzeptutik abiatuta, teknologiak baliatzen dituen justifikazioak eta alborapenak aztertuko dira, hain zuzen ere, kontsumitzaileak argitalpen-edukien pirateriara bideratzen dituztenak.

Ikerketa hori Qbo Ikerketa eta Estrategia erakundeak egin du, lantaldeetan eta inkestetan oinarrituta.

Lehenengo partea

Kultura idatziaren autore eta editoreen lanaren balioa

1



Azterlan honetan, herritarrek argitalpen-edukiei zer balio ematen dieten aztertzen da, eduki horien adierazpenetan eta berrerabilpen-modu guztietan.

Kultura idatzia, gizarteak aintzat hartutako ondasuna

Inkestari erantzun dioten guztiek nabarmendu dute idazleek, itzultzaileek, kazetariak eta editoreak kalitatezko edukiak sortzeko eta zabaltzeko egiten duten lanaren balioa; aitortu dute, halaber, argitalpen-lanek garrantzi handia dutela gure gizartean eta herri-administrazioek zer zeregin bete beharko lituzketen idatzizko kulturaren garapenean eta autoreen eta editoreen jabetza intelektualaren eskubideak sendotzeko prozesuan.

% 92

Galdeketari erantzun diotenen % 92k dute egilea eta editorea edukiaren kalitatearen eta sinesgarritasunaren bermetzat, bai liburuetan, bai egunkari, aldizkari zein partituretan



Autore taldeari dagokionez, nabarmentzen dute:

- ✓ Bizi- eta lanbide-esperientzia.
- ✓ Ikerketa eta dokumentazioa.
- ✓ Inbertitutako denbora.
- ✓ Idazketa estiloa.



Editore taldeari dagokionez, nabarmentzen dute:

- ✓ Merkatuaren azterketa-lana.
- ✓ Gaien eta egileen hautaketa.
- ✓ Zorroztasuna eta kalitatea.
- ✓ Jarduera komertziala.

Hori dela eta, gehienek ustez, adibidez, **autore eta editore profesionalak landu beharko lituzkete hezkuntza-edukiak**, eta ez herri-administrazioek edo beste eragile batzuek.

Era berean, azterlan honetan parte hartu dutenen artean **konfiantza handia dago argitaletxe mota horiek edukiak sarbide irekian eskaintzeko xedez argitaratzen dituzten materialetan**, beste informazio-iturri batzuen aurretik, hala nola Interneten aurretik.

Gizarteak oso modu positiboan baloratzen du egileen eta editoreen lana, bermea direlako edukien kalitateari eta sinesgarritasunari dagokionez, eta nahiago ditu horien materialak beste eragile batzuek ekoizten dituztenak baino.

Kultura idatzia, garapenerako funtsezko ondasuna

Baliabide eraldatzailea

Kultura idatziaren onurak bi maila elkarren osagarri hauetan zehazten dira:


1. GIZABANAKOARENTZAT

- ✓ Ezagutzaren oinarria da.
- ✓ Pentsamendu kritikoa sendotzen du eta manipulazioaren aurrean babesten du.
- ✓ Ikasteko eta aurrerapen pertsonal eta profesionalerako baliabidea da.
- ✓ Kulturaren eta hezkuntzaren funtsezko alderdia da.
- ✓ Balioak transmititzen ditu.

2. GIZARTEARENTZAT

- ✓ Kritikoagoa eta libreagoa da.
- ✓ Toleranteagoa, adeitsuagoa, zibikoagoa eta zuzenagoa da.
- ✓ Jantziagoa eta bilakatuagoa da.
- ✓ Aberatsagoa da, bai maila intelektualean bai materialean.
- ✓ Etorkizun hobea eskaintzen du.

Kultura idatziak gizabanakoa aberasten du ezagutzaren, sormenaren eta gaitasun kritikoaren bitartez; eta gizartea, berriz, askatasunaren, tolerantziaren eta aurrerakuntza kulturalaren bitartez.



Baliabide moldakorra

Galdetegiari erantzun diotenen ustez, honako hauek dira alderdi garrantzitsuenak: batetik, aberastasun pertsonala eta intelektuala, eta, bestetik, eduki editorialek eskaintzen dituzten ezagutzak eta kultura geureganatzea.

Era berean, pentsamendu kritikoa osatzeko eta profesionalki hazteko tresnatzat hartzen dituzte argitalpen horiek, eta aisialdiarekin lotutako beste onura batzuk ere nabarmentzen dituzte, hala nola, ihesbidea eta beste esperientzia batzuk bizitzeko aukera.

Emaitza horiek aditzera ematen dute argitalpen-edukiak baliabide moldakor gisa ikusten direla eta pertsonen onura esanguratsuak eskaintzeko gai direla, bai eremu pertsonalean, bai profesionalean.

Alderdi garrantzitsuenak gizartearentzat

Pertsona gisa aberastea.	Intelektualki haztea.	Hezkuntza eta kultura edukitzea.
Beste esperientzia batzuk bizitzea eta ihesbidea bilatzea.	Irudimena sustatzea, inspiratzea eta estimulatzea.	Neure kabuz pentsatzen laguntzea eta pentsamolde kritikoa edukitzea.
Gaien ulermena eta ezagumena hobetzea.	Alderdi profesionalean haztea.	Denbora pasatzea, entretenitzea, dibertitzea.

Kultura idatziak gizarteak ezagutzaren, informazioaren eta entretenimenduaren alorrean dituen premiei erantzuten die eta gizartearen espektatibetara eta eskaeretara egokitzen da, eragin berezia duelarik hezkuntzaren eta lanaren munduan.

Kalitatezko eta egitasuneko baliabidea

Kontsultatutako jendeak, halaber, material editorialen kalitatea eta egitasuna nabarmendu ditu. Jendearen ustez, oinarri sendoko edukiak eta informazioa ematen dituzte, errealitatearekin bat datozenak, eta horrek ezagutza errazten du eta desinformazioa saihesten.

Gainera, galdeketari erantzun dion jendeak oso aintzat hartzen du irizpide eta hizkuntza egokien erabilera, oso lagungarriak baitira landutako gaien argitasunari eta eskuragarritasunari dagokionez. Material horiek oso baloratuak dira, halaber, irakaskuntzaren esparruan, irakaskuntza-prozesua egituratzeko eta gidatzeko duten gaitasunagatik, ikaskuntza-prozesua errazten eta ikasleen eta profesionalen ulermena eta garapena hobetzen baitute.

Kultura idatziak funtsezko eginkizuna betetzen du gizartean, hezkuntza prozesuak eta prozesu profesionalak hobetzen dituzten ezagutza eta informazio egiazkoen eta kalitatezkoen iturri baita.

Beharrezkoa da jabetza intelektualaren eskubideak aintzat hartu eta errespetatuko dituen herri-administrazioa bat

Jabetza intelektualaren babestearen garrantzia

Txostenak erakusten du zein garrantzitsua den herritarrek egileen eta editoreen jabetza intelektualeko eskubideak babestea eta herri-administrazioak eskubide horien babesean parte hartzea:


% 93,97

Galdeketari erantzun dioten % 93,97k uste dute jabetza intelektualaren garrantzi handikoa dela gizartearen garapenean.


% 7,57

Galdeketari erantzun dioten % 87,57k uste dute beharrezkoa dela herri-administrazioa izatea jabetza intelektualeko eskubideen aitortzearen eta errespetuaren lider.

Jabetza intelektualaren garrantzia



Administrazioak gidatu behar du jabetza intelektualaren eskubideen errespetua



Herritarrek baieztatu badute ere beren ustez garrantzitsua dela herri-administrazioak egile-eskubideak babestea, **parte-hartzaileen % 71k uste dute herri-administrazioek ez dituztela inplementatzen jabetza intelektualeko eskubideak babestera eta egileei eta editoreei beren edukiak berrerabiltzeagatik ordainsaria ematera bideratutako politikak.**

Bi alderdi horiek funtsezkoak dira argitalpen-lanen garapenean eta iraunkortasunean.

Gizartean adostasun handia dago jabetza intelektualeko eskubideen garrantziari buruz eta herri-administrazioak eskubide horiek babesten eta errespetatzen inplikatzen beharri buruz.

Egileei eta editoreei laguntzeko arrazoiak

Galdetegiari erantzun diotenen uste dute sektore publikoak idatzizko kulturarekiko interesa izan beharko lukeela eta argitalpen-edukien egile eta editoreetan inbertitu beharko lukeela. Hona hemen arrazoiak:

1

Gizartea hobetzea:

Gizarte eboluzionatuagoa, kultuagoa, aberatsagoa eta oparagoa eraten dute, eta horrek ondorioz ekarriko du etorkizun hobea, toleranteagoa eta gizabidezkoagoa, konprometituagoa, sortzaileagoa, dinamikoagoa eta bizitasun handiagoa.

2

Etorkizun-bermea

Ezagutza zaintzen dute, ideia, eduki eta komunikazio berriak sortzea sustatzen dute eta belaunaldi berriei ideiak transmititzen laguntzen diete.

3

Hazkuntza hezkuntzaren

Irakaskuntza-maila guztietara zuzendutako eduki berrien eta eduki ugariagoen oinarria dira.

4

Aurrerapena eremu profesionalean:

Eraginkortasuna eta lehiakortasuna areagotzen duten trebetasunak garatzen dituzte eremu profesionalean.

5

Sektore publikoaren entzutea handitzen du:

Haiei esker, herritarrez eta guztion ongiar arduratzen den antolakunde gisa ikusten da herri-administrazioa: kulturaren eta hezkuntzaren aldeko apustua egiten duena, gardena, irekia eta positiboa; etorkizunaren alde lan egiten duena, eta harro sentitzeko modukoa.

Egileengan eta editoreengan inbertitzen duen herri-administrazioak gizartea hobetzen du, etorkizuna ziurtatzen du, hezkuntza eta aurrerapen profesionala sustatzen du eta sektore publikoaren izena sendotzen du.

Egile-eskubideak babesteko arrazoiak

Herri-administrazioa kultura idatziaren jabetza intelektualaren babesean inplikatur gero, hobetu egingo lirateke haren ospea, erantzukizun soziala eta sektore publikoaren iraunkortasuna.

Oro har, galdeketari erantzun diotenek uste dute bide horretatik gauzatutako ekintza irmo batek oinarri etikoak eta gobernu onari dagozkionak indartuko lituzkeela, esate baterako, haren jardunen gardentasuna eta osotasuna. Hori dela eta, eskubide horiek zainduz gero, kudeaketa publikoari lagunduko litzaioke ESG irizpideak (ingelesez, Environmental, Social and Governance, "ingurumena, gizartea eta gobernantza") betetzen eta hura profesionalizatzen.

Era berean, inkesta horrek agertzen du zer konpromiso duen herri-administrazioak egile-eskubideak babesten dituen komunitatearen etorkizunarekiko eta herritarren ongizatearekiko. Babes horrek ondorioz dakar, halaber, garapen kulturala eta teknologikoa balioesten eta bultzatzen duen ingurune bat sustatzea, gizartea aberastea eta oreka ziurtatzea, bai gaur egun, bai etorkizunean.

Herri-administrazio batek egile-eskubideak babesten dituenean, hobetu egiten du bere izen ona, eta baita bere gizarte erantzukizuna ere, ESG irizpideekin bat egin eta gizartearen garapen kultural eta teknologikoa sustatzen baititu.

Kultura eta egile-eskubideak babesteko ekintzak

Idatzizko kulturarekin —egindako ikerketaren arabera— lotutako ekimen publiko hauek dute babes handiena gizartean:

1. Tokiko idazle eta kazetarien bitartez kultur garapena bultzatzea eta egile-eskubideak babestea.
2. Liburutegi fisiko eta digitalen bitartez eta liburu-azoken bitartez kultura sustatzea.
3. Herritarren pentsamendu kritikoa garatzea.
4. Editoreek sortutako kalitatezko informazioaren alde egitea.
5. Historia eta identitate kulturala erreibindikatzea.

Kultura idatzia gure ondare kulturala da, eta herri-administrazioak sendotu eta babestu egin behar du, hori baita gure etorkizunaren bermea bai gizabanako gisa bai gizarte gisa.

Bigarren partea

Piratak eta haien motibazioak ezagutzea

2



Azken urteotan pirateriak gora egin duenez, Behatokiak ikerketa bat egin du kontsumitzaile piratek baliatzen dituzten justifikazioak eta testuinguru horretan teknologiak ustiatzen dituen alborapenak hobeto ulertzeko; era horretara, legez kanpoko jardun horri sustrai kognitibotik aurre egiten lagunduko dion estrategia bat diseinatu ahal izango da, ateratako emaitzetatik abiatuta betiere.

80 %

Kontsumitzaileen % 80k uste dute gauza bera dela liburu digital bat pirateatzea eta fisikoki lapurtzea; eta, hala ere, edukien lapurreta digitalak gorantz jarraitzen du.

Pirateria, jardun hedatua

Kultura Idatziaren Iraunkortasunaren Lehen Behatokian egiaztatu bezala, azterlan berri honek berresten du argitaratutako edukien pirateria oso hedatuta eta normalizatuta dagoela kontsumitzaileen artean. Jardun horrek eragin guztiz negatiboa du argitalpen-industrian, izan ere, diru-sarrerak murrizten ditu eta obra berriak sustatzeko interesa galtzen da ondorioz.

Pirateria motak

Egindako ikerketaren arabera, honako hauek dira liburuen, egunkarien, aldizkarien eta partituren kopia piratak eskuratzeko gehien erabiltzen diren bideak: berehalako mezularitzako plataformak eta sare sozialak (estekak eta fitxategiak partekatzen dira); legez kanpo deskargatzeko webguneak eta plataforma digitalak; hodeia eta P2P plataformak (peer to peer).

Azterlan honen emaitza garrantzitsu eta kezkarrietako batek erakusten duenez, **argitalpenak formatu digitalean kontsumitzen dituzten guztiak kontuan hartuta, % 67,50 legez kanpoko kanalen bidez iristen da argitalpenetara.** Horrek esan nahi du obra mota horien pirateria oso zabalduta dagoela eta, legez erosteko aukerak eduki arren, edukietara baimenik gabe sartzea erabakitzen dutela kontsumitzaile askok. Sarbide horiek xehetasun handiagoz aztertuz gero, hainbat pirata mota daudela ondoriozta dezakegu, jarduera hori legez kanpoko delat badakiten edo ez kontuan hartuta, hau da:

Oharkabean diharduena:

Sarbide piratak izan daitezkeenetik sartzen da edukietara (eduki digitalak legez kanpo kontsumitzen dituzten herritarren % 40).

Ohartuki diharduena:

Zentzu hertsian da pirata. Badaki bereizten zer eduki den pirata, eta, hala ere, legez kanpo jotzen du horietara (eduki digitalak legez kanpo kontsumitzen dituzten herritarren % 60).

Pirateriaren kontra borrokatzeko, lehenik eta behin, oharkabean diharduen piratari jakinarazi behar zaio legez kanpoko jarduera bat egiten ari dela, eta, bigarrenik, ohartuki diharduen piratari lagundu behar zaio bere pentsaera aldatzen. Azken kasu horretan, beharrezkoa da erabiltzaile horiek adierazten dituzten justifikazioak eta horien atzean dauden alborapen kognitiboak kontuan hartuko dituen estrategia bat osatzea.

Argitalpenak kontsumitzen dituztenen % 67,50ek legez kanpoko kanalen bidez kontsumitzen dituzte; edonola ere, denek ez dute pirateriari buruzko jabetze-maila bera. Jardun hori oso zabalduta eta normalizatuta dago, legezko hainbat aukera badaude ere eskura; beraz, garrantzitsua litzateke egoera bakoitzerako estrategia bat osatzea.

Jabetzen al zara legez deskargatzeko dituzun aukerez eta legez kanpo jardutearen arriskuez?

- A. Egiaztatu liburua, egunkaria, partitura edo aldizkaria eskuragarri dagoen zure liburutegian.
- B. Egiaztatu obra deskargatzeko erabiltzen duzun webguneak Espainian duen helbide fiskala eta dagozkion betebeharrak fiskalak betetzen dituen.
- C. Berrikusi cookie-en politika eta webguneako nabigazio-datuen erabilera.
- D. Egiaztatu erabiliko duzun webguneak baduen malware edo birus arriskurik –horretarako, berrikusi nabigatzailearen ohartarazpenak, URLa edo HTTP protokoloa– eta aktibatzen diren berbideratzeak eta pop-up susmagarriak.

Pirateriaren bidaia

Aurkeztutako azterketan, eduki piratetara sartu nahi duen pertsona batek hori lortzen duen arte egiten duen prozesu osoa deskribatu ahal izan da.



Argitalpenen piratek legez kanpo bilatzen, deskargatzen eta, zenbaitetan, partekatzen dituzte argitalpen-edukiak, eta formatu digitalean irakurtzen dituzte, gero.

Pirateriaren justifikazioak

Ikerketa-lanaren bitartez, piratek pirateria justifikatzeko erabiltzen dituzten argudioak hauteman dira. Argudio horiek babes-mekanismo gisa jarduten dute, legez kanpoko jarduera hori errudun sentitu gabe edo beren balioekin gatazka sortu gabe egin ahal izateko. Bederatzi multzotan sailkatu dira justifikazio horiek:



1. Teknologia: liburu, egunkari, aldizkari eta partitura gehiago pirateatzeko aukera ematen dit (galdeketari erantzun diotenen % 74,30ek).



2. Prezioa: eduki digitalak oso garestiak dira; bestela, ordainduko nituzke (galdeketari erantzun diotenen % 49,50ek)



3. Kultura idatzia: kultura idatzirako sarbidea errazten dit, hura demokratizatzen du (galdeketari erantzun diotenen % 48,40k).



4. Arau eta lege mailako aitzakiak: ez dago kontzientziatze-kanpainarik, ez da eduki pirata identifikatzen, legezkoa da edukia eskuratzea Interneten badago, ez dira kontsumo modu berrietara egokitzen (galdeketari erantzun diotenen % 39,70ek).



5. Praktikotasuna: ez dago dendetan, horrela ez dut ordainduko gero gustatuko ez zaidan zerbaitegatik, etab. (galdeketari erantzun diotenen % 38,40k).



6. Zigorgabetasuna eta ondorioak eza: ez dirudi ondorioak izango dituenik (galdeketari erantzun diotenen % 34k).



7. Eduki digitalaren balioa: digitala denak balio txikiagoa du, ez delako objektu fisiko bat, irakurtzen ditudan edukiak baino gehiago deskargatzen ditut (galdeketari erantzun diotenen % 30,10ek).



8. Sentipen estimulatzaileak: atsegin hartzen dut; gero eta eduki gehiago pirateatzen saiatzen naiz, mendekotasuna sortzen du; ospea ematen dit eduki digital idatziak doan partekatzea WhatsApp, Telegram edo bestelako sare sozialen bitartez (galdeketari erantzun diotenen % 20k).



9. Autorearengan duen ondorioa: lanaren autoreak ezagutzen ez badut, gehiago pirateatzen dut; autoreari mesede egiten diot, lana sustatzen dudalako; ez diot kalte ekonomikorik egiten ez autoreari ez editoreari (galdeketari erantzun diotenen % 17,40k).

Kontsumitzaileek argitalpen-edukien pirateria justifikatzen dute, disonantzia kognitibo bidez sortua, beren ekintza legez kanpokoaren eta beren etika edo moralaren arteko gatazka minimizatzen dutelako eta uste dutelako ez dutela beste era batera jarduteko behar adina ezagutzarik, ez dagoela pirateriaren kontrako neurri eraginkorrik edo ondorioak gutxienekoak direla.

Alborapen kognitiboak, teknologia eta argitalpen-dukien pirateria

Alborapen kognitiboek —zuhurtasuna eta erabakiak hartzeko prozesua desitxuratzeko dituzten joera inkontzienteak— funtsezko zeregina betetzen dute pertsonen edukien pirateria justifikatzeko moduan, teknologiaren erabilera orokorraren eraginpean baitaude. Teknologia pirateriaren justifikazioa ahalbidetzen duten sinesteak sustatzen ditu, haren erabilera esponentziala areagotzeko, eta horrek ondorio kaltegarriak dakarzikio gizarteari.

Kultura idatziaren pirateriaren justifikazioei eragiten dieten hainbat alborapen kognitibo identifikatu dira:

- **Ainguraketa:** pertsonak bere gain hartzen du pirateriari buruz jasotako lehen informazioa, hau da, doako edukia eskubide bat dela, eta horrek baldintzatzen du, gerora, haren jokabidea.
- **Galerari higuina:** pertsonak saihestu egiten du argitalpen-dukietara legez sartzeak dakarren gastuari lotutako ondoez psikologikoa.
- **Arraste-efektua:** pertsonak pirateria onartzen du, ikusten duelako jardun hori hedatuta eta justifikatuta dagoela gizarte-talde baten barruan, legez kanpoko jarduera izan arren.
- **Biktima identifikagarriaren efektua:** pertsonak pirateriagatik sentitzen duen errua arintzen du, horren ondorioz baitirudi autoreei eta argitaletxeei eragiten dien kaltea benetan dena baino arinagoa dela, ez dituelako kaltetuak modu pertsonalean identifikatzen.
- **Berehalako saria:** pertsonak lehentasuna ematen dio edukira berehala eta doan sartzeari, liburuak legez erosteko epe luzeko sarien gaintik, esaterako, egile hasiberriei laguntzearen saria.
- **Normalizazioa:** pertsonak ohikotzat, hedatutzat eta onartutzat hartzen du pirateria bere ingurune sozial edo kulturean.
- **Zero arriskua:** pertsonak argitalpen-dukia berehala erostea ekiditen du, eta minimizatu egiten du pirateriak kaltetutakoei eragiten dizkien ondorioak.

Alborapen kognitibo horiek jokabide desegokiak, pirateria adibidez, mugatzen dituzten indarrekin lerrokatuta daude, Dan Ariely (Ed. Especially Ourselves, 2013) Psikologia eta Ekonomia Konduktualeko katedradunak eta Medikuntzako Nobel Sariak (2008) argitaratutako *The (honest) truth about dishonesty* liburutik ondorioztatzen den moduan. Horregatik, indar horiek sortzen dituzten faktoreak, hala nola arrazionalizatzeko gaitasuna eta sormena, argitalpen-edukien pirateria justifikatzeko sortzen diren narrazioen oinarri dira.

Hala ere, edukien prezioa edo harrapatua izateko aukera ez dira beti faktore erabakigarriak jokabide desegokiak areagotzeko. Prezioari dagokionez, motibazioek eta balio indibidualek eragina izan dezakete jokabidean, bai eta etekin ekonomikoak bilatze hutsak ere. Harrapatua izateko arriskuari dagokionez, kanpoko faktoreek esku har dezakete, esaterako lege-oztopoek, baliabide teknologikoek edo ekonomikoek, identifikatua izateko aukera mugatzen baitute.

Bestalde, badira jokabide desegokiaren eragina, pirateria barne, murriztu dezaketen elementuak. Faktore horietan sartzen dira kontrol-mekanismoak, etikarekiko konpromisoa eta gogorazpen moralak, hala nola sentsibilizazio-kanpainak.

Argitalpen-edukien piraterian gehien eragiten duten alborapenak hauek dira: jokabidearen justifikazioa errazten dutenak, jardun hori ohikoa edo onartua delako pertzepzioa indartzen dutenak eta ondorio negatiboaren pertzepzioa arintzen edo inplikazio etiko eta legalak kontuan hartu beharra gutxitzen dutenak.



Zooma: adimen artifizial sortzailea, funtsezkoa kultura idatzian, non beharrezkoa baita merkatu digital orekatua eta etikoa

Europar Batasunak adimen artifizialari (AA) buruzko lehen araudia onartu du, eta pixkana-pixkana ezarriko da 2024ko abuztutik 2027ra. Araudi horren helburu nagusia da oinarritzko eskubideak errespetatzen dituzten AAKo tresnen garapen segurua bermatzea. Jabetza intelektualari dagokionez, araudiak gardentasuna eskatzen du babestutako materialen erabileran, eta AAK sortutako edukiak etiketatzea behartzen du, nahiz eta gutxieneko babesa ematen dien eredu horien entrenamenduan erabiltzen diren lanen autoreen eta editoreen eskubideei.

Aldi berean, Espainiako Gobernuak adimen artifizial sortzailearen (AAS) estrategia jarri du abian, eta hizkuntza-eredu propio bat garatzen ari da, AAn oinarritua, zeinak entrenatzeko erabiliko baititu gaztelaniazko edukiak eta ofizial diren beste hizkuntzetakoak. Horrek agerian uzten du Espainiak konpromisoa hartu duela herrialdearen hizkuntza-aniztasuna islatzen duten AA teknologien garapenarekin.

Arriskuak

Gaur egun, AAS garatzen duten enpresa asko argitalpen-edukiak erabiltzen ari dira dagozkien eskubideen titularren baimenik gabe eta inolako ordainsaririk aurreikusi gabe, ez entrenamendu-prozesuetan, ez haien produktuen ondorengo ustiapenetan. Egoera horrek merkatu digitala desitxuratzen du, lehia desleiala eta neurritz kanpoko jardunak sustatzen ditu eta datu-eskubideak eta jabetza intelektuala babesteko arazoak sortzen ditu, eta, horrela, status quo monopolistikoari eusten dio, web 2.1 agertu zenetik gertatzen ari den moduan.

Desoreka horrek eragin larria du idazle, itzultzaile, kazetari eta editoreengan, eta arriskuan jartzen du horien lanaren bideragarritasuna, haien diru-sarreretan eta inbertsioetan eragiten baitu. Alde batetik, lehen merkatuari eragiten dio, hau da, edukien zuzeneko salmentari, eta, gainera, prentsaren kasuan, baita publizitateari ere. Eta, bestetik, bigarren mailako merkatuari, hau da, edukien berrerabilpenari, horrek ere jasaten baititu AASaren ondorioak. Horrez gain, beren lanaren balioa urritzen du, zeina baita funtsezko tresna gizarte kultura, jantzia, berritzailea eta demokratikoa osatzeko.

Azkenik, edukiak automatikoki sortzeak arriskuak dakartzkio gizarte osoari, jatorrizko lanak eta AAK sortuak bereiztea zailtzen baitu, eta, horrela, sektorearen iraunkortasuna mehatxatzen du, giza sormena devaluatu eta egile-eskubideak ahultzen baititu. Gainera, AAKen algoritmoek sortutako edukiak ustiatzen eta garatzen dituzten joera kognitiboek ere eragin negatiboagoa izan dezakete gizartearen sinesmen eta balioetan. Balio etikoak desagertzen direnean, erronka berriak auzitegietan konpontzen dira beti. Argitalpen-sektorea da AAK sortutako **kontratu sozial** berriaren oinarrietako bat.


Merkatu digital iraunkorra eta etikoa

Herri-administrazioek hainbat neurri sustatu beharko lituzkete merkatu digital iraunkorra bermatzeko, zeinak sustatuko baitu AAS garatzen duten enpresen arteko lehia, eskubideen titularren datuen babesa eta jabetza intelektualaren eskubideak, lizentzia-sistemen bidez, eta, jakina, baita giza sormena ere.

Hirugarren partea

Irtenbideak

3



Irtenbideak

Administrazioak kultura idatziaren alde egin behar du, gure kultura-ondarea delako —eta, beraz, babestu egin behar delako—, baina baita etorkizunerako bermea delako ere, gizabanako, gizarte eta herrialde gisa. Gainera, aberastasuna dakarkio hezkuntzaren esparruari, eta eraginkortasuna eta lehiakortasuna areagotzen duten trebetasunak sortzen ditu eremu profesionalean. Sektore publikoak kultura idatzian egindako inbertsioak gizartearen aurrean duen irudia hobetzen laguntzen du.

Babes hori alderdi hauetan zehaztu beharko litzateke:

- **Politika publikoak definitu**, autoreen eta editoreen kalitatezko argitalpen-erdiak eta jabetza intelektualeko eskubideak sozialki eta ekonomikoki aitortzeko, bai hezkuntzaren arloan, bai arlo profesionalean, izan mundu analogikoan, izan digitalean, AAS barne.
- **Kanpaina eraginkorrak egin** edukien pirateriaren kontra, kontuan harturik zein diren herritarrek legez kanpoko jarduerak egiteko erabiltzen dituzten justifikazioak eta teknologiak baliatzen dituen alborapen kognitiboak.
- **Jardunbide egokietan hezi eta trebatu** jabetza intelektualari dagokionez, gizartearen esparru guztietan dauden baliabideak erabiliz, hezkuntzaren komunitatean bereziki.





www.cedro.org

2024 © CENTRO ESPAÑOL DE DERECHOS REPROGRÁFICOS